

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak bi zuzendariordetza eta lau atal izango ditu

Nafarroako Gobernuak haren estatutuak onartu ditu gaur

Miércoles, 30 de septiembre de 2015

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onartu ditu gaurko bilkuran. Erakunde horren zereginak honako hauek izango dira: emakume eta gizonen arteko berdintasun-politikak koordinatu eta kudeatzea Nafarroan, bai eta jarduera integraleko neurriak koordinatu eta kudeatzea ere emakumeen kontrako indarkeriaren edo genero-indarkeriaren aurrean.

Erakundeak bi zuzendariordetza eta lau atal izango ditu.

1. Plangintza eta Programen Zuzendariordetza ondorengo ataletan azpibanatzen da, aldi berean:
 - a. Generoko Programen eta Zeharkakotasunaren Atala.
 - b. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atala.
2. Sustapen eta Kudeaketa Zuzendariordetzak honako atal hauek izango ditu:
 - a. Informazio, Sentsibilizazio eta Partaidetza Sozialaren Atala.
 - b. Kudeaketa eta Baliabideen Atala.